

FOOD MASTER ENT.

Sarrerarekin hasteko, aurkibidean dauden atal guztiak aurkeztuko dizkizuegu. Lehenengoz, balio proposamen barruan gure enpresa zer nolako jarduera, nori bideratuta dagoen, prezioak, etab. azalduko dugu, hau da, modu orokor batean guztia adieraztea.

Gero, merkatu segmentazioarekin jarraituko dugu. Hemen nori bideratuta dagoen jarduera azalduko dugu. Jarraitzeko funtsezko elkarteak aurkeztuko dizkizuegu, hots, elkarlanean harremanak norekin izango ditugun. Ondoren, diru sarrerak finantzazioa nondik lortuko dugun adierazten dugu.

Gainera, gure informazioa hainbat kanal ezberdinen bidez izango ditugu eskuragarri, orduan hauek zeintzuk diren eta nola erabiltzen ditugun. Ildo beretik, bezeroekiko harremanetan geure erosleei aukera emango diegu gure langileekin kontaktuan egon ahal izateko, zalantzak egonez edo nahi izanez gero. Oro har, funtsezko baliabideak eta jardueretan gure proiektua martxan egon ahal izateko behar dugun guztia adierazita eta sailkatuta dauzkagu. Azkenik, kostuen egiturari kostu finko eta aldakorretan sakonduko dugu, enpresan izango ditugun gastu guztiak esanez.

Lehen-lehenik, balio proposamenarekin hasiko gara. Gure enpresaren proiektua, ikastaro baten bitartez segmentu guztietarako bideratuta dagoen sukaldatzen ikasteko kurtsilloak izango dira. Hau bitan sailkatutako izango dugu; alde batetik, lehiaketa bat egongo da non azkarrena eta gozatsuen irabaziko du, bestetik, lehiaketa barik izango da, hots, hain aurreratuta ez dauden guztiontzat edota bakarrik sukaldatu ikasu nahi dutentzat. Baina lehiaketa egonez gero, beti-beti giro osasuntsu eta egoki batean izan behar du.